

Ulertaraztaile kolektiboa: interpretazio-eredu mass-mediatikoa

Jose Inazio Basterretxea Polo
Kazetaria eta EHUKo irakaslea

Giza komunikazioak zeinuak darabiltza egitatea, mundua, ezagutza, ideiak eta pentsamenduak ordezkatzeko, komunikatzeko, jakinarazteko. Komunikazio-egintzan, norbaitek zeinu-seinaleak igortzen ditu beste norbaitek uler dezan jakinarazi gura zaiona. Komunikazioaren arazorik larriena, igorpen-testuinguru horretan, bere paradoxikotasunaren gordintasuna da; alegia, komunikazioak ordezkapenaren bitartez funtzionatu behar duela eta, ordezkapenaren bidez funtzionatzen duen heinean, etengabe eskatzen duela nola igorlearen hala hartzailearen etenbako inferentzia-zeregina mezuak konprenitzeko. Zentzua igortzerik ez dago, sentimendua igortzerik ez dago; nola zentzua hala sentimendua buruetan, eta buruetan bakarrik, bizi diren entelekiak dira. Entelekiak ulertzeko, inferitu, hausnartu beharra dago. Artikulu honek hurrengo galderari erantzun gura lioke: zer paper, rol edo eginkizun jokutzen dute, aipatutako inferentzia eta pentsamenduaren sorketan, hadabideek eurek, publiko handirako diharduten mezubide horiek?

Human communication uses signs to substitute, to communicate and to convey the being, the world, the knowledge, ideas and thoughts. In communication fact, someone sends signals to make another one know what he wants. The main problem in communication, within this context of sending, is the harshness of its paradox: communication must work by substitution, and in this way it requires a continuous inference to understand the messages.

If it is not possible to transmit the sense, it is not possible to transmit sentiments either, because sense and sentiments are results of mind. To understand these results it is necessary to infer, to think.

This article tries to answer the next question: which part, which roll or function plays, in the creation of the inference and the thought mentioned, the mass media directed to the grand public?

Ekonomiaren joerak eta paradigma teknologiko berria

Ulertaraztaile¹ figuraren ideia eta horren beharra C. S. Peirce² semiotika diziplinaren sortzaileari zor diogu; bere teoria semiotikoaren arabera, figura horrek bideratzen du, komunikazio-egintzetan, signifkazio-prozesuaren nondik eta norakoa. Peircerentzat ulertaraztailea zerbait baldin bada, komunikazio-egintzen interpretazio-giltza da.

Komunikazio-egintzetan, sentimentuen eta zentzuen ordezeko seinaleak igortzen ditugu, besteari jakinarazteko geure buruan zer dabilen. Norbait maite dugula sentitzen dugunean, hura laztantzen dugu. Bizi dugun gizarteak gure gurariak betetzen ez dituenean, berba hartzen dugu. Mundua irauli gura dugunean matxinada antolatzen dugu... Horiek guztiak sentimenduen eta zentzuen ordezkariak, modu nabarmenean, azaleratzen ditugun seinale informatiboak dira; laztanak, berbak edota matxinadak pentsamendu, egitate edota gertakizunen ordezkariak igortzen ditugun zeinu komunikatiboak dira.

Entzun, ikusi edota nabaritu denaren arabera, nork bere "konposizioa" egiten du eta igorritakoa bere modura, bere inferentziazio-ahalmenaren arabera ulertzen du. Informazio baten aurrean, munduaren ordezkariak bidaltzen den zeinu multzoaren aurrean, ez dugu denok "gauza" bera ulertzen, nork bere inferentzia-ahalmena baitu.

Inferentzia hori egiteko unean, igorri zaizkion eta berak hartu dituen seinaleek ordezkariak duten zentzua harrapatzeko unean, hartzaileak ulertaraztailearen beharra du. Termino semiotikoetan berba eginda, ulertaraztailea zeinuak ulertzeko, zeinuen bidez komunikatu gura dena ulertzeko beharrezkoa den inferentziarako tresna signifkatzailea da, ulertzeko ezinbestekoa den zeinu azaltzaile berria; ulertaraztailea, beraz, zeinu berri bat da, zeinu berri bat zeina lehena ulertzeko, lehenaren zentzua hartzeko eta signifkazioak eraikitzeko beharrezkoa baitaiguda.

Peirceren teoriaren jarraitzaileek ondo dakitenez, errepresentameneren³ batek, baldin eta besteren buruan ezelako ulertaraztailearik ez badu, ez du zeinu moduan funtzionatzen, ez du ezer komunikatzen (Deladalle 1996). Peirceren beraren berbak gogora ekarrita: pentsamendua bera da errepresentazioaren benetako erantzulea, bera da errepresentatuaz ezer argitu dezakeen bakarra (Peirce 1978).

Argi gera bedi, beraz: ulertaraztailea ez da ulertzailea. Ulertaraztailea ulertzailearen esku dago inferitzeko, ulertzeko eta, beraz, ulertaraztailea zeinu berria da, ez objektu fisiko edo abstraktua, horren ordezkariaren ordezkaria baizik. Ulertaraztailea zeinuaren zeinua da.

1. Argitasunaren izenean, *interpretante* kontzeptuaren ordezkari izan gura luke, artikulua honetan, *ulertaraztaileak*. Interpretatea (organismoa) eta interpretantea (funtzioa) nahas ez ditzagun, bigarrenari, interpretanteari, ulertaraztaile deitzen zaio.

2. Charles Sanders Peirce, USA, 1839-1914; lan-bilduma: Hartshorne et al. 1931-58.

3. Errepresentamena, Peirce autorearen lanetan, zerbaiten ordezkariak eraikitzen den huraxe da.

Uleraraztailea unitate kulturala da. Uleraraztailea signifkazioak eraikitzeke edota inferitzeko beharrezkoa dugun erreminta semiologikoa da. Uleraraztaile barik ez dugu zeinua eta hark ordezkaten duen objektuaren arteko harremana zertan datzan atzematerik, uleraraztaile barik ez dago signifkazioak eraikitzerik, ezta ulertzerik ere. Uleraraztaile barik gabe, mean mailu barik dagoen langilearen moduan aurkitzen gara, lana zelan egin ez dakigula. Uleraraztaile barik gauzei begiratu⁴ egingo diegu baina ez ditugu ikusiko⁵. Uleraraztaile barik, gauzak entzun⁶ egingo ditugu, baina ez ditugu adituko⁷. Uleraraztailea interpretazioaren oinarria da, abiapuntua, funtsean; pertsona batek munduari begiratzen dion modua, begiraleak munduaz duen ezagutzaren eta, begiratu horretan, begiraleak modu selektiboan bilatzen duen informazioaren menpekoea da (Hochberg 1983).

Demagun, esate baterako, soldadu-talde bat, denak agintariaren hitzaldia entzuten; halako batean, tronpetak soinua jotzen du (beharbada, mundu zibilarentzat ez-atsegina, estridentea; beharbada, musikari profesionalarentzat, pobrea, eskasa) eta soldadu guztiak, den-denak tente jartzen dira. Horra hor, uleraraztaile kastrensea lanean. U. Ecok berak adierazi duenez (1988), soinuak, liburu-orriak, horma baten gaineko koloreak, den-denak dira entitate fisikoak, adierazlearen materia, behin eta berriro signifkatuena batera igortzen gaituztenak, baldin eta nora begiratu behar dugun badakigun.

Peirceren irakurle konduktisten berbetan, uleraraztailea berezko nahiz hartutako ohitura, aztura, eskarmentua da; erantzuteko, arraposteko prestaketa prebioa: kontsiderazioa, azken finean (Morris 1985).

Interpretazioa

Interpretazioa ez da formari edukia aitortze-hutsa, adierazleari adierazia ezartze-soila, ez hori bakarrik. Interpretazioa parafrasia da, eduki antzerakoea beste modu batez azalaraztea, hain zuzen ere (Greimas & Courtés 1990); parafrasia, badakizu, operazio metalinguistikoa da: diskurtsoan ikusten du argia eta terminoen ordezkapena ekartzen digu burura. Interpretazioa, hartara, esan dezadan ostera ere, ordezkapen-egintza bat da. Interpretazioa, beste berba batzuetan azalduta, lengoaiaren funtzio paradigmaticoan oinarritutako itzulpena da. Baina ez hori bakarrik, baita bere espantsioa bilatzen duen itzulpen-egintza ere. Interpretatzen dugunean, egintza abstraktua egiten dugu eta, interpretatzean abstrakzioan dihardugun heinean, terminoaren ordezkapenak, itzulpenak eta parafrasiak, zenbait kasutan behinik behin, erabilpen kontestuala gaintzen du helburu generalista bilatzen duelarik.

Ikuspuntu horretatik begirata, interpretazioak ez luke mugarik; semiosia⁸ infinituraino luza daitekeen egintza da azalpenak azalpen berria behar baitu, inter-

4. *Begiratu*: so egin, norbaitengana edo zerbaitetara begiak zuzendu.

5. *Ikusi*: begien bidez, gauzak somatu; ikusmenaren bidez, gauzen irudiak hartu.

6. *Entzun*: soinua hauteman; entzumenaren bidez somatu.

7. *Aditu*: ulertu.

8. Forma eta edukiaren arteko harreman-egintza da *semiosia*, lengoaiaren egintza orotan aurkitzen den funtzio operatiboa.

pretazioak interpretazio berriaren beharra baitakar. Eta, lehenago ere esan dugu, interpretatzeko ulertaraztailearen beharra daukagu.

Baina adi. Interpretazioa, modu potentzial batean, muga bakoa dela esateak ez du esan gura helbururik ez duenik edota derrigorrez noraezean ibiltzeko jaioa denik (Eco 1992). Testu bat interpretatzea testu horren barne-koherentzia bilatzea da, eta koherentziak bere muga linguistikoak eta sozialak ditu; agian, ez dira oso argiak muga horiek, baina modu tazitoan, esan barik, esanda daude. Horretaz, hona hemen U. Eco (1995) inoiz emandako adibide ilustratzaile bat: Jack heste-ateratzaileak inoiz esango baligu egin zuen hura Lukasek idatzitako ebanjelioaren interpretazio batek gidaturik egin zuela, literatur-kritiko askok eta askok esango zukeen, seguru asko, Jacken irakurketa hura oso modu bitxian, nabarmenean, estrabagantean egina zela. Interpretazioak badu bere muga, jakina.

Goazen aurrera. Ulertaraztailea ez da ulertzailea, interpretea, haren interpreta-tzailea baizik, hots, zeinuaren baliozkotasuna bermatzen duena (Eco 1988). Zeinu komunikatiboak interpretearen buruan marrazten duen horixe da ulertaraztailea. Beste berba batzuetan esanda, adierazlearen adierazia ezartzeko, bigarren adierazle bat erabiltzen dugu eta bigarrenaren adierazia zehazteko hirugarren adierazle bat eraikitzen dugu... Terminoen ordezkapena, egintza semikoa, ikusten denez, infinituraino luzaturik agertzen zaigu; ulertaraztaileak beti baitu ulertaraztaile berriaren beharra.

Uleraraztailea zeinu baten denotazioen multzoa da, bai eta denotazio horien konnotazioen multzoa ere. Ulertaraztailea silogismoa izan daiteke, premisa huts bat, aztura bat, erantzun bat, disposizio bat, definizio zientifiko bat, emozio-elkar-tze bat, termino baten itzulpena, adierazle baten behin-behineko ordezkapena... baina beti da interpretatzeko giltza.

Har dezagun artetik adibide bat. Mundua ikusteko perspektiba ortogonal klasikoaren begiak baizik ez dituenak nekez ulertuko du perspektibaren eta espazioaren etena dakartzan kubismoaren irudiaren errepresentazio modernoa; eta, baldin eta metamorfosi plastikoaren ulertaraztaile kubistaren jabe egiten ez bada, baldin eta beste modu batera begiratzen eta ikusten ikasten ez badu, inolaz ere ez da atseginduko, esate baterako, Picassoren *Avignongo Andereñoak* koadroari begira. Koadro baten irakurketa ekintza progresiboa da, asko pentsatu barik egiten diren begiratuetan aurkitzen duena bere jaiotza eta modu dinamikoan luzatzen dena marrazkiaren eta kolorearen barne-koherentzia bilatu artean (Gombrich 1968).

Uleraraztailea eta kultura

Kulturak, berezkoa du hau, mundua azaltzeko, konprenitzeko eta erreflexiona-tzeko zeinu batzuk beste batzuetara itzultzen ditu. Kulturak definizio batzuk beste definizio batzuen bidez azaltzen ditu. Sistema bateko zeinu batzuk beste sistema bateko zeinuen bidez argitzen ditu: ideiak marrazkien bidez –Kristo-salbatzailearen minak ikono kristauen bidez–, irudiak ikurren bidez –naturaren paisajeak berba

idatzien bidez–, proposizioak adibideen bitartez, adibideak ereduaren bitartez... Printzipioz, printzipioz diot, mugarik ez duen kate batean, unitate kultural batzuk –ideiak, irudiak– beste batzuek –marrazkiek, ikurrek– ekartzen dituzte gogora.

Kultura unibertso semantikoa da⁹, kultura bakoitzak bere erreferenteak dauzka, egoera sozial orokorrak horrelaxe bideraturik; kultura bakoitza hizkuntza baten bitarteko mundu baten irudikatzea da. Ulertaraztailea eraikitzen berebiziko rola betetzen duen aztura komunikatua da kultura.

Sinbolismoa ez da logikoa, ez dezagun hori ahaztu. Sinbolismoa ezagutza instruktiboa da. Sinboloak deskodifikatzen, interpretatzen, ikasi beharra dago. Kristau kulturaren, adibidez, gurutzeak zerua eta lurra batzeko funtzio sintetizatzailea du, gurutzean egiten dute bat denborak eta espazioak, kreazioak eta apokalipsiak; hori ikasi beharra dago. Arte erromanikoak sarritan erakutsi digu, bere harri landuetan, existentzia lurrik ez duen hedagun lehoia, arrano-lehoia; kristau atormentatuak baino ez daki gorputzaren eta arimaren arteko batasuna aurkitzen munstro horretan (Champeaux & Stereckx 1972).

Komunikatua eta kultura

Egun, gero eta argiago agertzen zaigun fenomenoaren aurrean gaude: kultura hedabideen eskuetan dagoen esperimendu humanoa da. Ez bakarrik, jakina, baina kulturaren azturak, gaur, hedabideek ezartzen dituzten errutinen arabera ulertzen dira gero eta gehiago. Teknologia komunikatibo berrien esku, informazio-jario erraldoiak sartzen dira hedabideen erredakzioetan eta jario horiek burokratizatu egin dituzte profesionalen eginbideak (Wolf 1997). Gaur, inoiz baino gehiago, burokrazia-aztura berrien esku gelditu da kultura.

Interpretazioen oinarri soziala, gaur egun, gizartearen eskuetan barik, gizartearen iritzia ordezkatzeko duten hedabideen esku geratu da, hein handi batean. Interpretaziorako bidea irekitzen duen kulturaren definizio operatiboa, hartara, gizakiaren esku barik, instituzio burokratizatuak euren esku gera dadila gura dute.

Hedabideen eskutik, elite berriemakile batek bersemantizatu egin du mundua. Eliteak, mundua bersemantizatu ez ezik, munduaren interpretazioaren giltzak dauzka eduki. Hedabideen indar hori dela medio, gizaki sozialarengan *ulertaraztaile* kolektibo berriak sortu dira. Interpretazioa, orain, telezuzendua da. Interpretazioaren giltza eta kultura hedabideen emari zuzenetik edaten ditu, egun, gizakiak, mundu garatuan, zati handi batean.

Horra hor, esate baterako, moda, goi-jostunen arte-jolasa. Elite sortzailearen azalpena behar dugu modelo anorexikoek erakusten dituzten jantzien dotoretasun-

9. Unibertso semantikoa signifikazioen multzo orokorra da; multzo horrek, jakina, nola irakurketa indibidualista hala irakurketa kolektibista ditu (nor berea du, gizarteak berak berea du, biak multzo bera izan daitezke, baina ez du derrigorrez horrela beti izan behar).

na ulertzeko. Bere artea argumentatzeko irizpideak aireratzen dituen jostunarekiko elkarrizketa bako modelo-paseak ez du zentzurik. R. Barthes semiologoaren berbetan esateko: arropa deskribatua bere egoera puruan dagoen hizkuntza bat da, zeinu- eta erregela-multzo sistematikoa da izan (Barthes 1985). Gure berbetan esateko: jantziaren esanguraren zentzua hartzeko, jantzia sortu duen sortzailearen ulertaraztailearen beharra dugu izan.

Barrura gaitezen hedabideen esparruan. Ulertaraztaileen kategoriak, duda barik, asko lagun dezake iritzi publikoa ulertzen; baita hedabideetako diskurtsoen, entzuleen deskodifikazioaren eta zeinu mass-mediatikoen arteko harremana zertan datzan ikusten ere (Jensen 1997). Hedabideek signifkazioaren hiru estadio diferente sortzen dituzte euren jardueran: gertuko ulertaraztaileak, ulertaraztaile dinamikoak eta helburuko ulertaraztaileak deituko diegunak.

Gertuko ulertaraztailearen figurak signifkazio potentzialak dakartza gogora; esan gura baita ezen gertuko ulertaraztaileak hedabideetako diskurtsoen esangura estrukturala osatzen duten alde zurretiko interpretazio espezifikoa ekartzen dituela gogora. Gertuko ulertaraztaile mass-mediatikoa kalkuluen esparrukoa da, alegia zeinu mass-mediatikoa entzuleengan eragin dezakeen eragin ez-erabat analizatuaren esparru potentzialekoa. Beste modu batean esanda, kasu horretan, beharbadako signifkazioaz dihardugu.

Ostera, ulertaraztaile dinamikoaren figurak audientziak berak hedabideen diskurtsoetik egiten duen deskodifikazioa du buruan. Kasu horretan, ez gaude potentzialtasunaren aurrean, kasu horretan benetako eraginaren kasuaren aurrean gaude. Ulertaraztaile dinamikoa da zeinu batek interpretearengan eragiten duen efektu zuzena. Albiste konkretuaren inguruan, hedabideek eraikitzen duten kontestu informatiboak du hemen garrantzia. Hedabideen mezu jarraituek testuinguru sozial bereziak eraikitzen dituzte eta, horretan, interpreteek hedabideen emari zuzenetik edaten dute mundua deskodifikatzeko ulertaraztailea. Jario informatiboa bat-bateko uholde signifkatzailerak da; agente interpretatzaile mass-mediatikoa, euren, sortzen dituzte interpreteengan signifkazioak, ez gizakiak berak. Horra hor gakoa.

Helburuko ulertaraztailea epe luzeko eragin mass-mediatikoarekin dago harreman zuzenean. Ikuspuntu horretatik, hedabideen eragin interpretatiboa ez da albiste konkretuaren errezepzioa gertatu bezain pronto interpretearengan eraiki daitekeen ulertaraztailearen esparrukoa, errezepzio akumulatuak sor dezakeenaren esparrukoa baizik. Helburuko ulertaraztaileak eguneroko kontestu soziale-tako publikoaren eta entzuleen kognizioak eta ekintzak berbideratzen ditu. Helburuko ulertaraztailearen bitartez, kategoria sozialen aldaketa sakona bidera daiteke, munduaren bersemantizazioa gauzatu daiteke, eskala sozialak irauli daitezke edota instituzio sozial eta politiko konkretuenganako amorrak edo laudorioak sor daitezke. Uholdea igaro ondoren, lupetzak estaltzen du kalea eta hortxe dirau lokatzak, inork kendu ezik; helburuko interpretatzailea da gelditzen den lupetza.

Pentsamendua, Peircek berak esan ohi zuenez (1958) aurriritzietan oinarritzen da, aurre-konprentzioan, aurre-ulermenean eta, aldez aurretiko lan horretan, bere toki preminentea du ulertaraztaileak, bera baita ezer ulertzeko giltza. Informazioaren gizartean, duda, pentsamenduaren oinarria, ez dagokio gizakiari berari, komunitate pentsalariari baino eta, gaurko gizarte aurreratuan, informatzaile profesio-nalak dira duda eta pentsamendua definitzen dutenak.

Zeinua, zeinu komunikatiboa, ezaugarri espezifikoak da, mundua ikusteko erreminta, zeinaren arabera errealitatea eraikitzen dugun eta gure ekintzak bideratzeko ahalmena prestatzen den. Beraz, zeinuak pertzeptziorako bide dira, interpretaziorako giltza, elkarrizketa eta ekintzetarako arma. Gure aurrean ez dagoen ebidentzia baten ordezkioak dira zeinuak; baina zeinuek, eragina edukitzeko, ekintzak bideratzeko, ulertuak izan behar dute.

Ulertze-prozesu horretan, ez dago dudarik, ulertaraztailea dago tartean, horrexek bideratzen du zeinuaren esanguraren apreziazioa. Gure tesia, hemen, hauxe da: HEDABIDEK EUREK, EUREN ZAMA INFORMATIBOA DELA MEDIO, ERAIKITZEN DITUZTE ULERTARAZTAILE KOLEKTIBOETARIK ASKO ETA ASKO; ETA, ARMA HORREN KONTROLA DELA MEDIO, MUNDUAREN BERREZAGUTZA ETA BERSEMANTIZAZIOA BERMATURIK DUTE.

Zeinuak dira pentsamenduaren bitarteko. Giza sentimenez ez dute egitatea apreziatzen zeinuen deskodifikazioaren laguntzagatik ez bada. Zeinuen deskodifikazioa eta interpretazioa ezinezkoa da baldin eta pentsamendu-bideratzaileak ez bada, baldin eta zirkunstantzia-irakurleak ez bada, baldin eta ulertaraztaileak ez bada. Horra hor, ulertaraztailearen garrantzia munduaren kontzeptzioan eta pentsamenduaren eraiketan.

Epigrafearen izenburura itzulita, komunikatua da kulturaren eraikitzailea eta hedabideek eraikitzen eta definitzen duten kultura bera da, ulertaraztaileak sortuta, inferentziak eta interpretazioak bideratzen dituena.

Interpretazio-eredua komunikazio publikoan

Catherine Kerbrat-Orecchioni andereak komunikazio linguistikoa ulertzeko paradigma estruktural bat plazaratua du. Egitura horren arabera, komunikazio publikoan, komunikazioaren ekoizpen- eta interpretazio-ereduak desberdindu egin behar dira. Kerbrat anderearen ekoizpen-ereduaren ideiak gertuko ulertaraztailea ekartzen digu gogora. Norbaitek, zerbait komunikatu behar duenean, bere mezua eraikitzen duenean, berak erabilitako zeinuek zer eragin potentzial izan dezaketen aurrikusten du, bere analisi-eremua gertuko ulertaraztailearena da. Kerbrat-ek definitutako interpretazio-ereduak, ostera, gure ulertaraztaile dinamikoaren eta helburuzko ulertaraztailearen figurara hurbiltzen gaitu esaten duenean, zeinuaren eta, hartara, komunikazioaren ulerkuntza eta interpretazioa, besteak beste, hartzailearen kompetentzia ideologikoak eta kulturalak erabakitzen dutela (Kerbrat-Orecchioni 1980). Kompetentzia ideologikoa eta kulturala ikasiak dira eta, ikasiak diren heinean, norbaitek irakatsiak. Irakaste-prozesuan, begibistakoa da masa-hedabideek duten aparteko rola.

Gaur egungo ezagutza, ezagutza modernoa batez ere, informazio publikatuan oinarritutakoa da; munduaren ordezkua den seinalearen eskutikoak dira, egun, ezagutza eta pentsamendua. Ezagutza informatiboa, interpretazio-ereduak, sentiberatasuna eta eguneroko bizitza-ereduak diskurtsoaren menpekoak dira (Abril 1997). Gaur egungo interpretatzailearen sumisioak hedabideen menpekotasun-ereduak nozitzen ditu. Testu mass-mediatikoen irakurketa-praktikak kontsumoa, jarrera eta bizitza-eredu bereziak, ulertaraztaile moderno mass-mediatikoak pizten ditu interpretearengan.

Ulertaraztaile kolektiboa eta interpretazio-eredu modernoak

Zeinu baten erreferentea ezartzeko edozein ahaleginek entitate abstraktu baten definizioa egitera garamatza nahitaez eta konbentzio kulturala aurkitzen dugu azalpen orokortzaile eta abstraktu horren oinean (Eco 1988). Kultura orotan, unitate kulturala, kulturaren osagai indibidualizatua, sinpleki da gainerako kulturetatik apartatzen duen hori eta, beraz, unitate kulturalaren ideia abstraktua pertsona bat izan daiteke, lokalizazio geografiko bat, gauza bat, sentipen bat, itxaropen bat edota aluzinazio bat. Kultura batean, unitate kulturalak bere eremu semantikoak sortzen eta bermatzen ditu.

Edozein definiziok, sinonimok, aipatutako adibidek edota errepresentatutako objektuk behar du bere kate signifikatzailea, kultura konkretuan, zentzua aitortuko dion parafraasi esplikatzailea. Azalpen horiek unitate kulturetz baliatzen diren hurbilpen-ahalegin jarraituak dira. Signifikatzaile horien katea ulertaraztaileetan oinarritzen da, batez ere ulertaraztaile sozializatuetan edo publikoetan, kolektiboetan.

Gizartetik at geratu gura ez duenak, bere egin beharko ditu ulertaraztaile publikoak, gehiengoaren esku dauden horiek, iritzi publikoa (publikatua –Amézaga et al. 1997–) eraikitzen duten horiek. Norbaitek arlope-fama gura ez baldin badu, besteek begi okerreaz begira diezaioten gura ez baldin badu, ulertaraztaile kolektiboen beharra du izan, pentsamendu publikoagaz bat egin ahal izateko, gizartearen jario interpretatiboari segitu ahal izateko. Bazterketaren zigorra gura ez duenak (Noelle-Neuman 1995), bereak behar ditu ulertaraztaile kolektiboak; ulertaraztaile-sortzailerik nabarmenenen artean hedabideak ditugu, albisteak eta iritziak publikatzen dituztenak.

Elitearen ulertaraztailea, munduaren bersemantizazioa ahalbidetuz hedabide nagusiek sortzen laguntzen duten ulertaraztaile sasi-kolektiboa, ulertaraztaile benetan kolektibo bilakatzen da gizartetik baztertua izan gura ez duenarentzat.

Interpretazioa, azken finean, ikerketa-lan bat da, zeinuen zentzua eta norainokotasuna atzeman gura lituzkeena. Interpretazioa, beraz, itzulpena, deskodifikazioa, atribuzioa eta aurkikuntza da. Gaur egun, interpretazio horietarako aldagaien zerrenda publikoa da, esan gura baita hedabideek publiko egiten duten hori dela; bestela esanda, ez dago signifikazio-interpretaziorako baliagarria izan daitekeen aldagairik, zerbitzu kolektiboa egin dezakeenik, kultura mass-komunikatutik kanpo. Munduaren errepresentazioa, egun, hedabideetan dago; errepresentazioaren

aldagaiak, eurak ere, hedabideetan daude. Munduaren zentzua eta haren norainokotasuna –ez bakarrik, jakina; horra hor, esate baterako, eskolaren funtzioa bera ere– hedabideetan dago.

Munduko protagonisten itzulpena, linguistikoa edo bestelakoa, hedabideen esku dago. Protagonista mass-mediatikoak mass-mediak eurek itzulita ikusten ditugu, aditzen ditugu. Lege eta orden berriaren itzulpena hedabideek eurek eskaintzen digute eta, harrigarriena, itzulpen-lan horietan, askotan, jatorrizko bertsioa ulertzeko gauza ez diren profesionalak dihardute; mediokritatearen eskutiko parafrasia nozitzen dugu, sarritan.

Munduaren eta gizartearen aurrerapide sinestezin eta ulertezinen deskodifikazio popularrak hedabideek eurek egiten dizkigute. Multinazionalen aurrerakuntza teknologikoen deskodifikazio popularrak, presio-talde sozial-politikoen deontologia sasizibilizatu ulertezinen deskodifikazio popularrak, kultura zibernetikoaren emari ulerkaizen deskodifikazio popularrak... horiexek betetzen dituzte egunkarietako orrialdeak, irrati-espazioak eta telebista-produktuen minutuak. Moral sozialeko ontasun eta txarkeriaren atribuzioa, bakearen eta gertaren definizioa, interesgarritasunaren aurkikuntza... horiek guztiak hedabideen esku daude; utzi egin ditugu, agian.

Aipatutako protagonistak eta haien itzulpen multisistemikoa, aurrerakuntza teknologikoen eta presio-talde deontologiaren deskodifikazio intersistemikoa, moral sozialaren definizioa eta atribuzio intrasistemikoa, berritasunaren aurkikuntzak... horiek guztiak dira mundu modernoko unitate kultural berriak, gaurko interpretazio modernoan giltzak, egungo ulertaraztaileen oinarri mass-mediatikoak.

Egungo kate signifikatzaileak, kate interpretatibo modernoak, hedabideek sortzen dituzten ulertaraztaile kolektiboen menpe daude eta haien morroi dira. Inferentzia kolektiboa, zeinuaren zeinua, ordezkaren ordezkua, interpretazio kolektiboa ulertaraztaile mass-mediatikoek baldintzatua da. Signifikazioak eraikitze edota inferitzeko beharrezkoa dugun erreminta semiologikoa, ulertaraztailea, hedabideen jardueraren menpekua da.

Goiko adibidera itzulita, hedabideena da gaur interpretazioaren mearako mailua. Munduaren ordezkariak diren zeinu-multzoak interpretatzeko, hartzaileak, gizakiak, beharrezkoa duen inferentzia-ahalmena bere esku barik, hedabideen esku du. Ulertaraztaile kolektiboa gaur, gizakiarena barik, instituzio hedatzaileena, hedabideena da hein gero eta handiago batean.

Beraz, pragmatika soziala –kolektiboa, kolektibizatu dena eskolaren eta komunikazio publikatuaren bitartez– pragmatika indibiduala –indibiduaren kompetentzia zuzeneko, pertsonala, norberarena, autonomia pixkat duena– dei diezaiokegunari ari zaio lekua kentzen; lehenak (sozialak) bigarrena (pertsonala) ordezkatzeko bidea hartu du, hedabide modernoek esker, inoiz baino modu errazagoan hartu ere.

Bibliografía

- Abril, G., (1997): *Teoría general de la información*, Cátedra, Madrid.
- Amezaga et al. (1997): "Iritzi publikoa, iritzi publikatua eta publikoaren iritzia", *Uztaro 22*, UEU, Bilbo.
- Barthes, R., (1985): *L'aventure sémiologique*, Seuil, Paris.
- Champeaux & Sterekx, (1972): *Le monde des Symboles*, Zodiaque, St. Léger Vauban.
- Deladalle, G., (1996): *Leer a Peirce hoy*, Gedisa, Bartzelona.
- , (1988): *Tratado de semiótica general*, Lumen, Bartzelona.
- , (1992): *Los límites de la interpretación*, Lumen, Bartzelona.
- , (1995): *Interpretación y sobreinterpretación*, University Press, Cambridge.
- Gombrich, E.H., (1968): *Meditaciones sobre un caballo de juguete*, Seix Barral, Bartzelona.
- Greimas & Courtés (1990): *Semiótica: diccionario razonado de la teoría del lenguaje*, Gredos, Madrid.
- Hartshorne et al. (1931-58): *Collected Papers of Charles Sanders Peirce*, Harvard University Press, Cambridge.
- Hochberg, J., (1983): "La representación de objetos y personas" in *Arte, percepción y realidad*, Paidós, Bartzelona.
- Jensen, K. B., (1997): *La semiótica social de la comunicación de masas*, Bosch, Bartzelona.
- Kerbrat-Orecchioni, C., (1980): *L'énonciation de la subjectivité dans le langage*, Armand Colin, Paris.
- Morris, C., (1985): *Fundamentos de la teoría de los signos*, Paidós, Bartzelona.
- Noelle-Neuman, E., (1995): *La espiral del silencio*, Paidós, Bartzelona.
- Peirce, C.S., (1958): *Selected Writings*, Dover, New York.
- , (1978): *Ecrits sur le signe*, Seuil, Paris.
- Wolf, M., (1997): "Los emisores de noticias en la investigación sobre comunicación", *ZER 3*, EHU, Leioa.